




ALTERNATIBEN HERRIA

BILBO

URRIAK 24 DE OCTUBRE
LARUNBATA ★★ SÁBADO ★★

BIZITZA BURUJABEA ESKUBIDE OSOZ

#ALTERNATIBENHERRIA

 carta de los
derechos sociales **euskal herriko**
eskubide sozialen **KARTA**

Alternatibak dituen herria, bizirik dagoen herria da. Horixe irudikatzen du asmoz, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren Asanbladak datorren 2015eko urriaren 24an "Alternatibaren Herria" ekimena abiatuko du. Aldarrikapen eta ospakizun eguna izango da, egunerokoa bizia ematen ditugun hamaika proposamen handi eta txikien erakuslehoia, Kartaren ardatz nagusiak jarraituz. Topagune komuna.

Ekimen honekin jarraipena emanen diogu BIZI mugimendua, 2015eko abenduan Parisen klima aldaketari buruzko Goi Bileran dela eta, Alternatibaren Herriak antolatzeke egindako deialdiari, "sistema aldatu, ez klima" lelopean.

Izan ere, badira gure artean alternatibak egungo eredu soziala gainditzeko joateko. Hauetako asko gure esku daude; beste hainbeste, jorratzeko zain. Hauek guztiak aukera ematen dituge Euskal Herri justu, solidario eta desiragarria gogaitzeko.

Zer egin nahi dugu? Zer proposatzen dizuegu denon artean egiteko?

- ★ Euskal Herrian zehar, nork bere herrian, auzoan, taldean,... aurrera eramaten ari garen alternatibak eta proiektuak erakutsi. Eta erakustearik batera, informazioa partekatu, elkar ezagutu, gure artean gogoeta egin eta eztabaidatu... Denon artean konplizitate, aliantza, konfiantza,... behar eta nahi ditugun gure alternatiba ezberdinak saretzeko eta indartzeko. Horrela bakarrik aldatuko dira gauzak!
- ★ Botereek ezintasunera eramaten nahi gaituzte, haiek behin eta berriz sinestara nahi dituzte bide bakarra dagoela, ez dagoela beste alternatibarik. Horren kontra matxinatu nahi dugu. Bestelako bide batzuk jorratzeko ideiak, proiektuak, intuizioak, gogoak,... baditugula erakutsi nahi dugu


Hartara, heldu den urriaren 24an, Bilbon, Alternatibaren Herria egingo dugu. Egunaren zehar, Bilboko erdigunea, herri txiki bat bihurtuta, hausnarketaz, alternatiba praktikoz eta baikortasunez beteko dugu. Mobilizazio eraikitzailea, denontzako toki eginez.


Gune bakoitzean, arlo bakoitzean martxan dauden alternatibak ezagutaraziko dira jarduera ezberdinen bitartez: hitzaldiak, mahai inguruak, zoka, tailerrak, kale ikuskizunak, jolasak,... Zuen ideien eta ekarpenen zain eta irrikitan gaude!


Orain arte eragile anitzekin eginiko Batzar Irekietan, honako guneak eta gune bakoitzeko eduki nagusiak proposatu dira:


- ★ **Natura** (energia subirautza, klima aldaketa, hondakinak, mugikortasuna, elikadura burujabetza, kontsumoa,...)
- ★ **Ekonomia eredu** (finantza, txanpona, ekonomia sozial eraldatzailea, aberastasunaren banaketa, enplegua,...)
- ★ **Demokrazia, soberania eta parte hartzea** (eredu ekonomiko, soziala, kulturala eta politikoa erabakitzeke eskubidea, parte hartze soziopolitiko, parte hartze prozesuak, herrien arteko elkartzasuna...)
- ★ **Bizitzaren iraunkortasuna** (zaintza, harremanak, gorputzak,...)
- ★ **Aniztasuna** (jatorria, identitatea, sexu, funtzionalitatearen inguruko aniztasunaren kudeaketa, ...)
- ★ **Öndare komuna** (euskal hizkuntza, hezkuntza, euskal kultura)

Noski, egunak festa kutsua izan dezan kale animazioa, jan-edanerako gunea, musika,... ez dira faltako. Eraldaketaren bidean, denon lana beharrezkoa izango da Alternatibaren Herria antolatzen eta baita alternatibak eraikitzen jarraitzeko. Denon artean, Euskal Herri bizia eraikitzen jarraitzeko.

 <http://alternatibenherria.eus>

 kontaktua@alternatibenherria.eus

 [@alterherria](#)

 [Alternatibaren-Herria](#)